

Antso Nagusiaren milurtean, Euskal Herria/Nafarroa Osoaren Euskal Eskola Nazionalatz hausnarketa

Elias Mendinueta eta Mirari Bereziartua. Azpeitia

“Antso Illa Nagusia euskal nazionalitatearen aita dugu. Hari esker bizi gara herri gisa”

Anacleto Ortueta (Bilbo 1877-1959) egileak idatzia.

Ikus “Nabarra Estado Politico de Vasconia” (1931), Pamiela-Nabarralde 2002.

Zergatik Antsoaren sinboloa

Herritarren ekimenez, Herri honi dagokion eskola sarea egite lanak, aspaldiko urteetan ari dira ematen. Hasierako sortzaileek nazio kontzientzi argiagoarekin egin zuten bere lana eta oraingoek berriz kontzientzi hori berpiztu nahian gabilta. Ikastolen ibilbide hori -herri honen historia luzea kontsideratuz- laburra da. Eta inoiz baino gehiago, gaur egun, geure etorkizunaren eragile bezala, derrigorrezkoa dugu herri honen historia bere osotasunean kontutan izatea.

Historiak argi uzten du, formak eta sinboloak ahaztu egiten dituen edonork, galtzaile bezala bukatzen duela. Horregatik, gogora ekartzea komeni zaigu ikastolen lehenengo kongresuko liburuan azaltzen dena. Ikastolok herri honen hezkuntza definitzerakoan, eguneroko praktikari zenbait ideia gehitu genizkion. Horrela, txostenean oinarritzko zenbait ideia jasotzen dira euskal identitateari lotuta, besteak beste, euskaldunon gizaegituraketa historiko propioen formak, diskurtsuak eta sinboloak...

Orain da momentua -orain baita daukagun bakarra- geure sinboloaz eta historiak egoki baliatzen hastekoa, bereziki hezkuntza eremuan. Zergatik diogu hau? Hainbat jende badagoelako hezkuntza sistema, gestio ikuspegi hutsetik begiratzeko joera duena, zerbitzu publiko baten definizio hutsean geldituz. Galdera da, non kokatzen da zerbitzu publiko hori, inguruko bi estatuek inposatutako sare Administratiboaren eremuan?

Euskal Eskola Nazionala esaten dugunean, *Nazionalaren* kokapenaz ari gara, hor dagoelako gure gakoa. Eta geure historiak aukera paregabea ematen digu horretarako. Historia eta Antso Nagusiari lotuta egia da euskaldunok ez dugula errege eta erresuma beharrik, eta izan genituenaz hamaika esateko badugula, baina hori dena ere gure historia da. Dena dela ere, kritikotasun horrekin batera, geure buruari, Europari eta mundu osoari adierazteko aukera ematen digu, aldarrikatzen dugun estatua ez dela egoera berri bat, baizik eta historikoki izan dugun zerbait errekueratzea dela. Eskubidea beti izan arren, berdina ez delako aurreneko aldiz izatea edo indarkeriz kendu zigutena errekueratzea. Eta hori da gure nazioaren kokapena eta bere eskolaren kokapena, hau da EUSKAL ESKOLA NAZIONALarena.

Beraz, ongi etorria Antso Nagusiaren milurtekoaren memoria, herri honen eskubideak bere garaietan nola egituratuta izan genituen gogora ekartzeko aukera bikaina delako. Horrek bi ikuspegi jorratzeko aukera ematen digu. Bata, Euskal Herria /Nafarroa Osoaren Administrazio propioaren barruan geure hezkuntza sistemari dagokion kokapena nola eman erabakitzeakoa, eta bi, sistema horretako ikasleak euskaldun bezala hezitzerakoan herri honen kontzientzia historikoa izateko tresna egokiak prestatzekoa.

Historiak zertan laguntzen digu

Historiak beti izan ditzake interpretazio asko. Ez da berdina izaten gerra irabazleek galtzaileen historiak esaten dutena, eta galtzaileek protagonista zuzenak izanik, bere buruaz esaten dutena. Horregatik ez da berdina herri honen historia Nafar erresumaren barruan kokatzea edo ez, bai irabazleek galtzaileei inposatu ziguten gaurko egoera Administratiboaren kontzientzia hartzerakoan, eta baita ere, egoeraren balorazio guttiz diferentea sortzen duelako.

Gure seme-alaben hezkuntza egoerak errealitatera oso modu gordinean ekartzen gaitu. Lurraldetasun osoaren ikuspegia galtzen ari direnen ebidentziak dauzkagu. Eta ez dira bakarrak. Historia, paktismoaren gezurretan oinarrituta ikasteak edo konkistaren errealitatean ezagutzeak, izugarritzko eragina izan du herri honen historian eta izaten ari da gaur egun ere etorkizuna diseinatzerakoan.

Hezkuntzan gertatzen zaigu, besteak beste, konkistatzaileek inposatutako egitura Administratiboan lasai-lasai kokatzen dituztenean ikastolak. Publiko izena ondoan ipiniz, adierazten ari direna zera da, geure egitura propiorik ez dugula behar, konkistatzaileak inposatutakoak euskaraz jantziz berdin balio digutelako. Honek herri identitateari izugarritzko jipioa ematen dio eta 1993tik hona herri identitatearen kontzientzia galtze handia suposatu du hezkuntza eremuan.

Argi utzita, erregeen funtzionamentuaz kritikoak garen bezalaxe, ikastolen funtzionamentuaz ere bagarela (eta zer esanik ez beste sareetaz), ezin duguna ahaztu zera da, herri honi bere egitura politiko guztiak indarkeriz kendu ondoren, herriak berak sortutako sarea direla ikastolak, herriak bere osotasuenan egitura politiko propioa eskuratzen duen bitartean, euskal eskola nazionalaren motorra izateko bokazioarekin. Non dago ba gako nagusia ?. Bai Antso Nagusiaren aurretik eta bai ondoren, herri honek bere burua gobernatzeko duen nahian. Hau da, gaur egun erabiltzen den terminoetara egokituta, nazio bezala eratu eta herri honen identitatea sustatzeko herritarrok daukagun borondatean dago gakoa.

Gogo honen adierazle nagusia zera izan da, herri honek euskara bizirik mantentzeko erakutsi duen grina. Eta horren inguruan aipagarria da, euskal identitatearen alde, hizkuntzarekin batera, hezkuntza zerbitzua antolatuz, Euskal Herrian zehar sare propio bezala osatuz herritarrek egindako lana, bai gerra aurretik euskal eskola bezala eta bai gerra ondoren ikastolak. Errealitate honen azterketa, historiarekin egin den bezalaxe, ikuspegi bikoitzetik egiteko joera handia dago, abertzaleen artean ere.

Hain zuzen ere ikuspegi estatutistak egiten duena, inguruko bi estatuak herri honi inposatutako egitura Administratiboko eskola sareak euskaldun bihurtu eta geure eskola direla adierazterakoan. Areago oraindik, ikastolei ere, publiko eta pribatu terminoak erantsi eta konkistatzaileen marko Administratibora sartzen dituztenean. Horrekin geure herri identitatearen erreferentzia esperientzia ezabatuta uzteko arrisku larrian ipintzen dute, lurraldetasunaren kontzientzia politikoa baztertuz. Abertzale guztiok, bai ikastolen sarean gaudenok eta bai beste sareetan daudenak, ezinbestekoa dugu identitateari dagokion diferentzia horren kontzientzia errekuiperatzea. Kontzientzia horrek emango digu, batzuei eta besteei, euskal eskola nazionalaren kokapen egokia egiteko aukera. Eta, kokapen guztiak berdinak ez badira ere, EUSKAL ESKOLA NAZIONALAREN egituraketa lortzeak abertzale guztion beharra du.

Horregatik diogu historia derrigorrezkoa dela Euskal Eskola Nazionala ondo kokatzeko, horrek legitimatzen laguntzen digulako, geure borondatearekin batera, eskola horrek zerbitzu publiko bezala, herriaren eskubideak bermatzeko derrigorrezkoa duen estatu egituraketa eskola nazionala izateko. Herriaren borondatea erabakiorra den bezalaxe, historia ere klabea da bere efektu sinbolikoaz gain, barnean duen esanahi politikoagatik, jende askoren jarrera politikoen oinarrian dagoelako.

Historia dela eta momentu garrantzitsu bat bizitzen ari gara, poliki, poliki eraldaketa geldiezina bihurtzen ari baita. Gure errealitatearen kontzientzia berri bat eragiten ari den heinean etorkizuna ere modu berri batez diseinatzeko aukera bizitzen ari gara. Horregatik, Nabarralderen eragina oso interesgarria da, Euskal Herria, Nafarroa Osoaren ikuspegi zentralen laguntzen digulako euskal historialarien lan serioen eskutik, lurraldetasun historikoak sortzen duen kontzientzia politikoa errekuiperatzeko.

Kontzientzia hori oso garrantzitsutzat daukagu guztiok, baina egunerokotasunak susto bat baino gehiago ematen dizkigu. Esaten dugunetik egiten dugunera koxka dagoelako. Ikastolok badugu zer esanik urte askotan bide gogorra tokatu zaigulako egitea. Gure ahaleginak izugarri gordinak izaten ari dira hiru Administrazioetan egonez, sentsibiltate diferenteetako jendez osatuta elkarrekin proiektu bat aurrera eramaten gabiltzalako zuzenean arduratuz. Lurraldeen arteko diferentziak sortzen dizkiguten arazoak ez dira txantxetakoak. Hori seriozki aztertu beharreko zerbait da. Euskaldunok sufritzen ari garen lurraldeen zatiketa Administrazioa oso serioa da eta proiektu komunak eramaterakoan asko zailtzen digu.

Horregatik, urteak aurrera doazen bezala, gero eta argiago dago lurraldetasunaren kontzientzia historikoa jasotzeko duen garrantzia, herri honek estatu bezala egituratzean eskarmentua baduelako eta horrek lurraldearen egituraketa egokiagoak egiten lagunduko digulako. Gainera gure herriak munduko beste edozein herri duen bezalaxe –historikoki izan edo aurreneko aldiz izan- libreki aukeratzeko eskubidea du.

Ikastoletako jendeak herritar bezala, beste herritar batzuegandik jaso dugun altxorra, geure estatuan kokatzea pendiente dugun egin beharra da. Horrela Nafar Estatu berrituan/Euskal Herriaren Eskola Nazionala egituratuta utziko dugu. Txanpon beraren bi aurpegiak -egituraketa politikoa eta kulturala- bateratuta gelditzeko parada izango dugu.

Hori izango da zentru guztientzat marko Administrazio bakarra. Orduan hasi gaitzke hitzegiten geure publiko eta pribatuaz, denak izango direlako geure herriaren identitatea jorrazteko egituratuak. Beraz, egoeraren kontzientzia hartzea, historian ondo kokatzea, gure nahiak etorkizunari begira egoki diseinatzea eta hori dena egunerokotasunean txertatzea guztion ardura delako, denon zeregina izango da ekin eta jarraitzea lortu arte.